

Hego Euskal Herriko kooperatiba ehunaren bilakaeraren lurralde analisisia

Territorial analysis of the evolution of the cooperative system in the Basque Country

Aratz SOTO GORROTXATEGI

UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea
aratz.soto@ehu.eus

Liseth DIAZ MOLINA

UPV/EHUko Ikerlari eta Garapenari buruzko Ikasketetan doktoregai
lisethdelsocorro@ehu.eus

DOI: 10.1387/revs.20506

Fecha de entrada: 21/05/2018

Fecha de aceptación: 03/09/2018

Aurkibidea: 1. Sarrera.—2. Metodologia, informazio iturriak eta datuak.—3. Hego Euskal Herriko kooperatibagintzara hurbilketa historiko laburra.—4. Hego Euskal Herriko Kooperatiba ehunaren bilakaera krisi garaian eta egungo ezaugarriak.—5. Ondorioak.—6. Bibliografia.

Laburpena:

Azken hamarkadetan Kooperatibek Euskal Herriko garapen sozio-ekonomikoan duten garrantzi kuantitatibo zein kualitatiboa handituz joan da. Hego Euskal Herriari dagokionez, xx. mende hasieratik aurrera sektore honek gorakada nabarmena bizi izan du, 2008an leherturiko krisi bortitzak igoera hau gelditu duen arren. Epe hori mugarri hartuta, hain zuzen ere, ekingo diogu artikulu honetan kooperatiba ehunak izan duen bilakaeraren azterketari.

Artikuluak kooperatiba ehunari dagozkion ezaugarri nagusien bilakaerak aztertzen ditu, hala nola, kooperatiba mota, jarduera sektorea, enplegua etabar. Honela, kooperatibek Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan 2007-2017 urteen bitartean izandako bilakaera aztertzea izango du helburu nagusitzat artikuluak. Batez ere eskualde ezberdinetan jarriko dugu atenzioa, Nafarroaren kasuan izan ezik, ez baitugu informazio hori eskuragarri eta, beraz, Lurralde Historiko mailako azterketara mugatuko gara kasu horretan.

Azterketa horretatik eratortzen den ondorio nagusia Hego Euskal Herriko sektore kooperatiboak gainontzeko ekonomia-aktoreek baino bilakaera dinamiko eta positiboagoa izan duela da, kontuan harturiko epealdian, bai entitate kopuru zein enpleguari dago-

kionez. Bestalde, lurralde ezberdinek krisiari aurre egiteko duten gaitasuna, kooperatiben presentziarekin lotzea hipotesi ausartegia dela ondorioztatzen da.

Hitz gakoak:

Kooperatiba, Ehun produktiboa, Enplegua, Langabezia tasa, Hego Euskal Herria, Krisi ekonomikoa.

Abstract:

The quantitative and qualitative importance that the Cooperativism have in the socio-economic development of the Basque Country has increased considerably in recent decades. In the specific case of Hego Euskal Herria, at the beginning of the present century the cooperative movement saw a considerable expansion, braked irretrievably with the outbreak in 2008 of the great crisis. Precisely it will be from that date on which we will focus to perform the analysis of the cooperative sector in this article.

The article examines the evolution of the main characteristics of the cooperative tissue, such as the type of cooperative, the activity sector, employment, etc. So, the article studies the evolution of the cooperatives in Araba, Bizkaia, Gipuzkoa and Nafarroa for the 2007-2017 periode, focused in the differents regions.

The analysis derived from the present work concludes that the cooperative sector of Hego Euskal Herria has been more dynamic and offers better data than the economy in general, in terms of the evolution of entities and employment. On the other hand, it is difficult to establish a direct relationship between resilience to the crisis of a given territory according to greater or lesser presence of cooperativism in its economic structure.

Keywords:

Cooperative, Economic structure, Employment, Unemployment rate, Basque Country, Economic crisis.

Econlit gakoak:

A13, B55, E24, J54, P13.

1. Sarrera

Azken hamarkadetan Kooperatibek Euskal Herriko garapen sozio-ekonomikoan duten garrantzi kuantitatibo zein kualitatiboa handituz joan da.

Hego Euskal Herriari dagokionez, xx. mende hasieratik aurrera sektore honek gorakada nabarmena bizi izan du, 2008an leherturiko enagarren krisi bortitzak igoera hau gelditu duen arren. Epe hori mugarri hartuta, hain zuzen ere, ekingo diogu artikuluko honetan kooperatiba ehunak izan duen bilakaeraren azterketari.

Zentzu honetan, kooperatibek lurraldeen kohesio soziala sendotzen dutela azpimarratzen dute azterlan eta argitalpen ezberdinek. Esaterako, enpresa egitura eta berau antolatzekeo modu berezia dela eta kooperatibakideen arteko ezberdintasun ekonomikoak txikitzen direlako (Barragué eta Zalakain, 2017), edota lan baldintza eta enpleguaren kalitatea kooperatibetan «ohiko» enpresa kapitalistetan baino hobetoagoak direlako, besteak beste (Smith eta Rothbaum, 2013).

Ziklo ekonomikoen aurrean kooperatibek duten bilakaera eta portaeraren inguruan, bestalde, literatura sozio-ekonomiko eta azterketa enpiriko gehienek gainontzeko enpresek baino portaera hobea izaten dutela baieztatzen dute, enplegu mailari dagokionez batik bat, baita krisi garaietan ere. Horregatik, krisi ekonomikoei aurre egiteko kooperatibek gaitasun handiagoa dutela defendatzen da orohar (Bretos eta Morandeira, 2016; Sala *et al.*, 2014). Hala ere, beste ikerlan batzuek kontrako hipotesia defendatzen dute, hala nola García Jaének espainiar estatuaren kasurako eginiko azterketan, non «krisialdi eta ondorengo urteetan kooperatibek eta lan sozietateek ekonomiak izandako bilakaera baino okerragoa» izan dutela baieztatzen duen (García, 2017).

Artikulu honetan Hego Euskal Herriko kooperatibek izandako bilakaera aztertuko dugu, krisia lehertu eta 2018 urte hasiera arte (eskuragarri ditugun azken datuak). Horretarako, hurrengo atalean azterketa egiteko erabilitako metodologia eta informazio iturriak zeintzuk izan diren azaltzen da. Hirugarrenean Hego Euskal Herriko kooperatibagintzarenganako hurbilketa historiko labur bat eskaintzen da, sektoreak egun dituen ezaugarriak eta bere bilakaera ulertzeko ere baliagarri izan litekeena. Laugarren atalean kooperatiba ehunak krisialdian zehar izandako bilakaera aztertuko dugu, gaur eguneko ezaugarrietan atentzioa jarriz, lurraldeen arteko ezberdintasunetan sakonduz. Azkenik, bostgarren atalean, eginiko azterketaren ondorioak aurkezten dira.

2. Metodologia, informazio iturriak eta datuak

Esan dugun bezala, artikuluko helburu nagusia kooperatibek Hego Euskal Herrian 2007-2017¹ urteen bitartean izan duten bilakaera nolakoa izan den azaltzea da, ehun ekonomiko totalen duten garrantzi erlatiboari ere so ginez.

¹ Datuak urte bakoitzeko abenduaren 31koak dira.

Hartarako, analisia maila geografiko ezberdinetan egingo dugu, eskualdekako azterketa lehenetsiz, datuak erabilgarri dauden kasuetan. Zentzu honetan, aipatu beharra dago Hego Euskal Herriaren egoera politiko-administratiboa dela eta, zailtasun itzelak daudela datu homogeneoak lortzeko. Honela, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren inguruko kooperatiben datu gehientsuenak (eta osatuenak, lurralde ikuspegitik) Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiak (OVES/GEEB) eskaintzen dituenak dira. Nafarroaren kasuan, aldiz, honelako behatoki/erakunderik ez dagoenez, espainiar estatuko Enplegu eta Gizarte Segurantzak Ministeritzak argitaratzen dituen datuak darabilzkigu, zeintzuetan eskualdekako datuak ez dauden eskuragarri.

Honi loturik gogorazi nahi genuke kooperatiben (eta orokorrean, gizarte ekonomiaren) inguruko datu eta informazioa ez dagoela nahikoa sistematizaturik, batez ere lurralde ikuspegiari so egiten badiogu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako kooperatibagintzaren egoera sozio-ekonomikoa biltzeko OVES/GEEBek egiten duen lana makala ez bada ere, (Bretos, 2015)-ek azaltzen duen bezala datuok lortzeko zailtasunak ugariak dira. Eta zer esanik ez hiru Lurralde Historiko horiez gain Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko gainontzekoak kontuan hartu nahi badira, non ez dagoen inolako erakunderik errealitate honen azterketa/ikerketa egiteko. Egoera honetatik, beraz, zailtasun anitz erortzen dira Euskal Herri mailako kooperatibagintzaren azterketa integrala egiteko.

Hego Euskal Herriko datu sozio-ekonomiko orokorreari dagokienez (langabezia tasa, ehun ekonomikoa, enplegu totala, etab.) EUSTAT eta INE izan dira informazio iturri nagusiak, ahalik eta datu homogeneoak bilatu ditugularik bien artean. Beste behin, EUSTATen bidez eskualdekako informazioa bildu ahal izan dugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzako, baina ez Nafarroarentzako.

Aipatu dugun bezala, egin nahi dugun azterketak lurralde ikuspegi markatua duenez, ohikoak diren taula eta grafikoez gain, dugun informazioa Informazio Sistema Geografikoaren bidez ere ustiatuko dugu. Honela, eskualde ezberdinen arteko konparaketak egin ahal izango ditugu eta kooperatibagintzaren ezaugarri nagusien bilakaera era ezberdin batean bistartuko dugu.

Beste aldetik, sarreran aipatu dugu kooperatibek Hego Euskal Herrian izan duten bilakaera historiko labur bat ere egingo dugula eta, hortaz, literatura ekonomiko-historikoaren errepasso txiki bat ere egingo dugu, kooperatibagintzaren sustraiek gure gizartean izan duen garrantzia plazaratu eta gogorazteko, oinarri haietatik sortu baitira, azken finean, gaur egun eza gutzen ditugun kooperatiba «modernoak».

3. Hego Euskal Herriko kooperatibagintzara hurbilketa historiko laburra

Nahiz eta artikulua helburu nagusia Hego Euskal Herriko egungo kooperatiben errealitatea eta eboluzio hurbila azaltzea den, komenigarria iruditzen zaigu gure lurraldean kooperatibagintzaren aintzindari izandako elementu zentralak edo sustraiak aipatzea, horiek egungo errealitatea ulertzen lagunduko digulakoan.

Hasteko, kapitalismo aurretiko gizarte ezberdinak aztertu dituzten ikerlanek ondorio berdintsu bat plazaratu dute: gizarte aurre-kapitaliston bizitza sozial, politiko, ekonomiko eta kulturala pertsona eta talde ezberdinen arteko lankidetzan oinarritzen zen batik bat, garai eta eremu ezberdinetan ematen ziren dominazio harreman eta ezberdintasun jakinekin batera, batzuetan. Honek egungo sistema sozio-ekonomikoaren hauspotzaila eta defendatzaileek aldarrikatzen duen kapitalismoaren izaera «naturala» eta «beharrezkoa» hankaz gora jartzen du.

Jada egipziarren garaian lankidetzaren arrastoak dokumentaturik daude, zeintzuek kooperatiben ezaugarriak zituzten elkartek zerabilten ekonomiaren zenbait aspektu antolatzeke. Beste adibide batzuk Babilonian (non nekazal produktuak trukatzeko kooperatibak zeuden) edota XVI mendeko Ameriketako Indio Iroquearren artean aurkitzen ditugu, gutxi batzuk aipatzeagatik (Engels, 1970; Morgan, 1987).

Euskal Herrian ere, nola ez, lankidetzaren arrastoak eta auto-antolaketa esperientziak aurkitzen ditugu gizarte aurre-kapitalistetako gizarte, politika eta ekonomia antolaketan. Horietako adibide esanguratsu eta ezagunenetakoa gaur egun bizirik dirauten Arrantzale Kofradia da, esaterako.

Zentzu honetan, Olabarrik eginiko lanari jarraituz, ekonomia arloko hiru eremu nagusitan aurki genitzake «joera kooperatibo eta komunitarioak», zeintzuek garrantzia izango zuten kooperatibagintzaren bilakaera eta portaeran: landa eremuan, arrantzan eta artisau lanean (Olabarri, 1985).

Hiru arlo horietan elkartasuna, lankidetzaren arteko harremanak, etabar aurki ditzazkegu, hain zuzen ere kooperatiba modernoek beren izaeraren muinean barneratu dituztenak sortu zirenetik. Landa eremuan, esaterako, abeltzaintza aurrera eramateko lankidetzazko ohiturak eta usadioak aurkitzen ditugu; larreen erabilera komunitarioa bestetik; Kontzeju edota auzo izaerako bestelako erakundeen garrantzia bizitza sozial eta ekonomikoko hainbat eta hainbat arlori erantzun amankomunak emateko, baikoitzak euren barne egitura eta ordezkariekin; edota azkenaldian nonahi entzuten dugun eta bogan dagoen «auzolana» bera, zeinaren bitartez komunitatearen beharrak betetzeko bizilagun guztiak bete behar zuten lanari egiten zion erreferentzia.

Arrantza munduari dagokionez, Kofradiak bazkideen arteko elkarrekiko laguntza funtzio ezberdinak izan dituzte Erdi Aroko garaitik, arrantzaturikoaren banaketa ere bazkide bakoitzak eginiko ekarpen monetarioa soilik kontuan hartu gabe egiten zutelarik, besteak beste. Gogoratu behar da, bide batez, askotan kooperatiben aintzindari bezala hartu izan direla Arrantzale Kofradiak, lankidetzazko eta berdintasunezko harremanek gidaturiko erakunde ziren heinean.

Olabari eta beste hainbat ikerlarik gremioek artisautzaren izaeran izandako garrantzia azpimarratzean bat datoz. Izan ere artisauen arteko elkargune bezala funtzionatu zuten gremioek, zeintzuetan lanaren antolaketa zehaztu eta eginkizun mutualistak betetzen ziren artisauen artean. Horrez gain, ezin utzi aipatu gabe Europako herrialde ia guztietan (Frantzia eta Espainian barne) XIX. mendean gremioak legez kanpo utzi ziren bitartean, Hego Euskal Herrian gremioen tradizioak bizirik jarraitu zuela. Honek eragin zuzena izango zuen kooperatiba modernoan sorreran, gremioek indar gehien zuten lurraldeetan sozietate hauen sorrera ugariagoa izango baitzen (Debagoienako eskualdea kasu), autore hauei jarraituz.

Azkenik Foruek lurraldeetako bizitza ekonomikoan ezartzen zituzten harreman eta arauak aipatu behar ditugu. Gogora ditzagun, esaterako, Enkarterrietako meatzeen ustiapen eta jabetzaren gain Bizakaiko Foruek ezartzen zuen erregimen partikularra: meatzeak Enkarterriko hiri eta lurraldeen jabetza kolektibokoak ziren eta, ondorioz, bertako biztanleek nahi zuten modura erabil eta baliatu zezaketen, batak besteari kalte ez egitearen baldintza bakarrarekin; meatzea ustiatzeko 4-5 langileko taldeak osatzen zituzten normalean biztanleek, gastu zein lorturiko produktu finala parekideki partekatzen zituztelarik (Uriarte, 1988).

Noski, meatzeen ustiaketa sistema berezi honek ondorioak zituen, bai ekonomikoki, bai eta sozialki, autore berdinak aipatzen duen bezala. Bate-tik, produktibitatea ez zen oso altua izaten, lana talde txikietan eta modu nahiko eskasetan eramaten baitzuten aurrera eta biztanleek lortzen zituzte etekinak ez zirenez handiegiak, hauek ez zuten interes handiegirik izaten lanabes eta teknika moderno eta hobekoak erabiltzeko. Bestetik biztanle orok meatzeak ustiatzeko eskubidea izateak ezberdintasun ekonomiko handiak ez sortzea eragiten zuen.

Guzti horiek, nekazal, abeltzaintzako, arrantzazko zein artisautzako jarduerak aurrera eramateko «joera kooperatibo eta komunitarioen» garrantzia azaltzen dute, baina ikusten da ez zirela ekonomia aktibitate jakin batzuetara soilik mugatzen ziren usadio edo ohiturak, baizik eta praktikan gizartearen funtzionamenduaren aspektu guztietan zuela presentzia eta eragin zuzena.

Nahiz eta joera, ohitura edota lege horiek eta beste asko ez diren, noski, egungo kooperatiben *berehalako* sustraiak, esanenez guzti horiek sustraion ongarrri edo zoru emankor gisa jokatu zutela. Beste era ba-

tera esanda, egungo kooperatiben *berehalako* sustraiak kapitalismoak berak ezarri zituen, langile klase askea bera sortuz, batetik, eta honen etengabeko txirotzea eraginez, bizi baldintzak okertuz, bestetik. Egoera horren aurrean, gizarte aurrekapitalistetan ematen ziren lankidetzazko harreman eta ohiturek ongarri moduan jokatu eta kooperatibentzako lur emankor bilakatu ziren.

Gaur egun ezagutzen ditugun kooperatiba modernoei dagokienez, jada feudalismoa behin betiko atzean utzi eta kapitalismoaren zabaltzearekin batera sortu ziren, Europako beste herrialde gehienetan bezalaxe. Batez ere Lehen Industri Iraultzaren testuinguruan, indibidualismoaren gailentzearekin eta aipatu dugun langileriaren txirotze prozesuarekin, betidanik eman izan diren lankidetzazko eta berdinen arteko harremanetara itzultzea izan zen langileek sistemari eta errealtate latzari emateko aurkitu zuten erantzuna. Horrela, Hego Euskal Herriko lehenengo kooperatibak XIX mendeko 70eko hamarkada inguruan sortuko ziren, nahiz eta dokumentaturik aurkitzen den lehena 1884 urtekoa den, Bizkaian sorturiko kontsumo kooperatiba bat.

Ondorengo hamarkadetan izaera ezberdinetako hamaika kooperatiba sortuko ziren, hauen sorrera sustatzaileen jatorri eta ideologiagatik erabat baldintzaturik egongo zirenak. Batetik, kontrajarria badirudi ere, enpresariak bultzaturiko kooperatibak sortu ziren, zeintzuk enpresaren estrategiaren barruan kokaturik sustatuak izaten ziren (batzuetan kooperatiba hauek independentzia gradu bat lortzen bazuten ere orohar enpresaburuek maneiatzen zituzten) eta klase borrokaren baitan langileen indarrari aurre egiteko tresna bezala ulertuak izan behar diren. Mugimendu hau Nafarroan eman zen bereziki, nekazal guneeetan.

Bestetik «kooperatiba sozialistak» deiturikoak aurkitzen ziren, garaiko langile mugimenduaren baitan kokatu behar direnak eta ez zirela soilik langileen berehalako interesei erantzuteko, baizik eta sindikatu, alderdi politiko etabarrekin batera gizartearen eraldaketa bilatzen zutela, edo bizitza sozialemu aspektu ezberdinetara zabaltzen zituzten euren jarduerak behintzat.

Horiez gain, kooperatiba «katoliko» eta «solidarioak» ere bereizten ditu Olabarrik bere lanean. Azken hauek ere kutsu katolikoa bazuten ere (Sabino Aranaren abertzaletasunari lotu izan dira), euskal abertzaletasuna ardatz zuten kooperatiba sozialista hauek eta Solidaridad de Trabajadores Vascos ELA-STV sindikatuak sustatuak izan ziren. Egungo kooperatiben bilakaeran izandako garrantziagatik, baliagarria da sindikatuak 1933 urtean Gasteizen eginiko kongresuan onartu zuen programa, kooperatibagintzaren inguruan. Bertan sindikatuak kooperatibagintzari ematen zion garrantzia ikusten da, honako egitasmoak onartu zituztelarik:

1. Euskal Langileen Elkarketa bat dagoen herri guztietan, kontsumo-kooperatibak eratzea.

2. Euskal Kontsumo-Kooperatiben Herrialde-Federazioak eratzea, erosgaiak kopuru handietan erosiz (merkeago erosteko asmoz).
3. Federaturiko Kooperatiba guztiei bhear dituzten banka-zerbitzuak hornitzeko Mailegu-Kooperatiba eratzea.
4. Mailegu-kooperatiben barruan, Aurrezki-Kutxa sortzea, aurrezki txikiak batu eta bideratzeko.
5. Industria, nekazaritza eta arrantza arloko ekoizpen kooperatibak sortu, eta hauek eta kontsumo-Kooperatiben Herrialde-Federazioen artean beharrezkoa den harremana sendotu, horien salgaiak Euskadiren barruan erosiak izateko.
6. Ekoizpen-Kooperatiba eta Mailegu-Kooperatiben artean ere, behar den harremana sendotu. Horrela, lehengaien erosketa erraztuko zaie Kooperatibei, eta, bestalde, egindako ekoizpenaren bilketak Ekoizpen-Kooperatiben ekonomi bilakaera oztopatu egiten duenean, beharko dituzten aurrerapenak egingo dizkie.
7. ELAkiek osaturiko edozein motako Kooperatiba guztien jardueraren egokitasuna zaindu eta kontrolatzeko asmoz, Batzordeberezi bat izendatzea. Berez zein ordezkoen bidez eta Konfederakuntzaren Batzordearen agindupean bideratuko du bere jarduera.

Hain zuzen ere «kooperatiba solidario» hauen esperientzietan oinarrituko zen, batez ere, frankismo garaian J.M. Arizmendiarieta Mondragon kooperatiba taldea martxan jartzeko, egungo euskal kooperatibagintzaren ikur bilakatu dena (Olabarri, 1985; Gil 2002; Zelaia, 1997), batez ere Gipuzkoan, hastapenetatik, eta modu apalagoan Bizkaia, Araba eta Nafarroan. Hala ere Arizmendiarietaren gain bestelako kooperatibek izandako eragina ere nabarmena izan zen, batik bat Alfa industriako kooperatiba mitikoarena, zeina 1920 urtean sortu zuten UGT sindikatuko kide batzuek (hau da, Olabarrik «kooperatiba sozialistaren» barruan kokatzen duena) (Olabarri, 1985; Zelaia, 1997).

Egungo Mondragon Taldearen inguruko ikerketa ugariak, zehazki, eta kooperatibismoaren ingurukoak, orokorrean, euskal kooperatibagintzaren bi aldarri nagusi azpimarratu izan dituzte, gainontzeko esperientzia kooperatiboetatik bereizten duena. Lehena, lan elkartuko kooperatibek duten garrantzia, kontsumoko edota zerbitzuko aldean, munduko beste leku gutxietan gertatzen den fenomeno delarik. Bigarrena, kooperatiba industrialek (izan) duten garrantzia, gainontzeko sektoreen aldean. Bi bereiztasun hauek, noski, erabat loturik daude Mondragon taldearen bilakaera eta izaerarekin. Hori batez ere Gipuzkoa eta Bizkaiako kooperatibagintzan eman da eta ez hainbeste Nafarroa eta Arabako kasuan, egungo egoeran islatzen delarik, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala.

Azkenik, interesgarria litzateke Arizmendiarietaren (bide batez, Mondragon Taldearen) pentsamendua kontuan hartu eta aztertzea, kooperati- bagintza ulertzeko moduak bere praktika baldintzatzen duen heinean eta bertan aurki bai genitzake egun euskal kooperatiben zati handi batek di- tuen barne arazoak. Hala ere, honelako lanak gure artikulua helburua luze gainditzen duenez ez dugu egingo².

4. Hego Euskal Herriko Kooperatiba ehunaren bilakaera krisi garaian eta egungo ezaugarriak

Artikuluaren atal honetan Hego Euskal Herriko kooperatiben egungo egoeraren azterketa egingo dugu, bere ezaugarri sozio-ekonomiko nagusiak ezagutzeko, bai eta krisia lehertu zenetik izan duen bilakaera ere. Horretarako, euskal kooperatibek gure lurraldean duten presentziaren inguruko hainbat ezaugarri hartuko ditugu kontutan, hala nola kooperatiba mota, zein jardueratan eramaten duten aurrera euren aktibitate ekonomikoa, lurralde bakoitzean kooperatibok duten pisua eta sortzen duten enplegua, batik bat.

Kooperatiben lurralde banaketa


1 Grafikan ikus dezakegunez Bizkaia da egun kooperatiba gehien metatzen dituen Lurralde Historikoa, hamar urteren buruan nabarmen hartu duelarik pisua Hego Euskal Herriko kooperatiba guztiengan. Bigarrenik Gipuzkoa dugu, kooperatiba guztien heren bat bertan aurkitzen delarik. Bi lurraldeon artean, beraz, kooperatiben hiru laurdenak hartzen dituzte egun, Araba eta Nafarroak bakoitzak, kooperatiba guztien %15 metatzen dituzten bitartean. Ikusten dugu, bestalde, krisialdiaren hasieratik honaino koopera- tibak Bizkaian eta Gipuzkoan geroz eta gehiago kontzentratzen direla.

Ikusmira eskualdeetan jarritz gero, nabaria da guztietan kooperatiben kopuruak nabarmen egin duela gora, 1 Mapari so eginez gero. Gainera, hi- riburuak aurkitzen diren eskualdeetan kooperatibok kontzentratzeko joera bat dagoela ikusten da, hau da, Bilbo Handiko, Donostialdeko eta Ara- bako Lautadako eskualdeetan. Bestalde, lehenago aipatu dugun kooperati- bagintza modernoaren aintzindari den Debagoienako eskualdeak duen gar- rantzia kuantitatiboa ere begi bistakoa da.

² Arizmendiarietaren beraren testuek, Joxe Azurmendiren «El Hombre Cooperativo. Pen- samiento de Arizmendiarieta» eta Iñaki Gil de San Vicentek «Cooperativismo Obrero, conse- jismo y autogestión socialista. Algunas lecciones para Euskal Herria» lanetan aurki dezake bidea interesa duenak.

1. grafika

Kooperatiben lurralde banaketa Hego Euskal Herrian. 2007, 2017




Iturria: geuk egina OVES/GEEB eta espainiar estatuko Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministeritzaren datuetatik abiatuta.

Errealitate horren aurkako joera Arabako eskualde gehienetan ikusten dugu, non 2017 urte amaieran 30 kooperatiba inguru soilik aurkitzen dugun bakoitzean. Hala ere, kontuan harturik lurraldeotako establezimendu eta biztanle kopurua, kooperatibok lurraldeotan duten garrantzia erlatiboa aipagarria da, aurrerago ikusiko dugun bezala. Haatik, Arrati-Nerbioi eta Gernika-Bermeoko eskualdeetan kuantitatiboki egoera berdintsua izanik, garrantzia erlatibo askoz ere baxuagoa dute kooperatibek ehun ekonomikoan.

1. mapa

Kooperatibak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskualdeetan. 2007, 2017



Iturria: geuk egina OVES/GEEBen datuetatik abiatuta.

Kooperatiba motak

Kooperatiba motari dagokionez, lehenago esan dugun bezala, Hego Euskal Herriko kooperatibagintzaren ezaugarrietako bat lan elkartzeko kooperatiben nagusitasuna da, kontsumoko, nekazaritzako eta bestelakoen aurrean, beste herrialde ezberdinetan gertatzen denaren aurka.

Horixe da 1 Taulan ikusten duguna, Hego Euskal Herriko kooperatiben ia %70 lan elkartzekoak dira, Gipuzkoan eta Bizkaian nabariagoa den fenomeno delarik, Araba eta Nafarroan baino. Kasutan kooperatiben erdiak dira lan elkartzekoak, gutxi gora behera. Fenomeno hau azaltzen duen faktore erabakigarriena kooperatiben jarduera, gehienbat, industria arlokoa, merkataritzakoa edota jarduera profesionalekoa izatea da, hain zuzen ere lan indar bateratua eta ezagutza direlarik jardueraren muina, Gipuzkoan eta Bizkaian kontzentratzen direlarik jarduerok, beste behin, Araba eta Nafarroaren aldean, non nekazaritza jarduerako kooperatibek pisu askoz ere esanguratsuagoa duten.

Zentzu berean, esanguratsua da Nafarroako kooperatiben %35,6 nekazaritzakoak direla, Hego Euskal Herri osoko kooperatiben %8 soilik direnean mota hauetakoak. Arabaren kasuan ere nekazaritzako kooperatibak batz bestekoaren gainetik kokatzen dira, nahiz eta Nafarroaren kasuan baino askoz ere maila apalagoan. Bizkaia eta Gipuzkoa, bestalde, nekazaritzako kooperatiben kopuru urriagatik dira azpimarragarriak, kooperatiba totalen %2 inguru baitira mota hauetakoak.

Eskualdeei dagokienez aipagarriak dira Arabako Mendialdeak (non kooperatiba mota hauek eskualdeko %60 suposatzen duten) baita Errioxa Arabarra edota Arabako Lautada ere, non ia bakoitzaren kooperatiba totalen erdiak nekazaritzakoak diren, zeintzuk azken finean lurraldeko ekonomia ereduaren isla diren. Kooperatiba mota hauen presentzia nabaria aurkitzen dugu, baita ere, Arrati-Nerbioi (eskualdeko kooperatiba guztien %21,7) eta Tolosaldean (%11,1), inguruko eskualdeekin alderatuz maila askoz ere esanguratsuagoak.

Lan elkartzeko kooperatibez gain, ugariak etxebizitzakoak dira, guztietatik %12 direlarik, eta orokorrean gertatzen den bezelaxe, hiriburuak aurkitzen diren eskualdeetan kontzentratzen dira gehienak, Nafarroan ez ezik. Honela, Nafarroan aurkitzen diren kooperatiba guztien apenas %1,5 direlarik eta Gipuzkoako %6, beste bi Lurralde Historikoetako kooperatiben %20 inguru suposatzen dute etxebizitzako kooperatibek. Honela, etxebizitzako kooperatiben pisu erlatiboa handia da Kantauri eta Errioxa Arabarra edo Gernika-Bermeo eskualdeetan, Gipuzkoakoetan pisu erlatiboa %5 inguran kokatzen den bitartean, gutxi gora behera (Donostialdea izan ezik).

1. taula**Kooperatibak motaren arabera (%). 2017**

	Nekazaritza	Konts.	2 graduakoak	Irakaskun.	Mixtoa	Enp. Zerb.	Zerb. Prof.	Lan Elkar.	Junior Koop.	Erxebizitza	Besteak
Arabako Ibarrek	45,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	45,5	0,0	9,1
Arabako Lautada	7,2	0,8	2,4	1,9	1,1	1,6	1,9	61,7	0,0	21,3	0,3
Araba Mendialdea	60,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	40,0	0,0	0,0	0,0
Errioxa Arabarra	45,7	0,0	2,9	8,6	0,0	0,0	0,0	25,7	0,0	17,1	0,0
Gorbeia Inguruak	13,6	0,0	4,5	0,0	0,0	4,5	0,0	68,2	0,0	4,5	4,5
Kantauri Arabarra	7,3	4,9	0,0	4,9	2,4	2,4	0,0	48,8	0,0	29,3	0,0
ARABA	11,6	1,0	2,2	2,4	1,0	1,6	1,4	56,7	1,0	20,2	0,6
Arrati Nerbioi	20,7	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	79,3	0,0	0,0	0,0
Bilbo Handia	0,8	1,0	0,5	2,3	0,2	1,0	1,8	71,4	0,0	21,0	0,1
Durungaldea	2,3	1,5	2,3	8,3	0,8	0,0	0,0	78,8	0,0	6,1	0,0
Enkartzioak	9,4	0,0	0,0	3,8	0,0	0,0	0,0	86,8	0,0	0,0	0,0
Gernika-Bermeo	4,2	4,2	4,2	6,3	2,1	0,0	2,1	56,3	0,0	18,8	2,1
Plentzia-Mungia	8,3	0,0	2,1	6,3	2,1	0,0	0,0	72,9	0,0	8,3	0,0
Lea-Artibai	2,6	0,0	2,6	7,7	7,7	0,0	0,0	76,9	0,0	2,6	0,0
BIZKAIA	2,1	1,0	0,9	3,3	0,6	0,7	1,4	72,5	0,0	17,3	0,1
Bidasoa Beherea	0,7	0,0	0,0	0,7	1,5	1,5	0,7	88,8	3,7	2,2	0,0
Debarrena	2,1	4,2	6,3	2,1	0,0	0,0	0,0	75,0	0,0	10,4	0,0
Debagoiena	1,2	0,6	8,5	3,6	6,7	7,3	1,8	60,6	3,0	6,1	0,6
Donostialdea	1,3	1,1	0,7	3,3	2,2	0,9	1,5	81,2	0,0	7,9	0,0
Goierni	4,3	2,2	1,4	5,0	2,2	1,4	0,7	78,4	0,0	4,3	0,0
Tolosa	11,1	1,9	0,0	11,1	0,0	0,0	1,9	70,4	0,0	3,7	0,0
Urola Kostaldea	4,7	5,8	1,2	5,8	3,5	0,0	1,2	69,8	0,0	7,0	1,2
GIPUZKOA	2,4	1,6	2,1	3,8	2,7	1,8	1,3	76,9	0,9	6,3	0,2
NAFARROA	35,6	4,3	e.e.	4,6	e.e.	2,7	e.e.	46,4	0,0	1,4	5,0
HEGO EUSKAL HERRIA	8,2	1,7	1,3	3,5	1,2	1,5	1,2	68,0	0,4	12,1	0,9

Iturria: geuk egina OVES/GEEB eta espainiar estatuko Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministeritzaren datuetatik abiatuta.


Irakaskuntzako kooperatibek ere merezi dute aipamen berezia, izan ere, azterturikoez gain koperatiba guztien %3 baino gehiago suposatzen duten kooperatiba mota bakarrak dira, ahaztu gabe zein garrantzia izan zuten (eta duten) frankismo garaian euskara eta euskal kultura ez galtzeko.

Hego Euskal Herriko lurralde ezberdinei erreparatu, Nafarroa da irakaskuntzako kooperatiba gehien metatzen dituen erlatiboki, Gipuzkoak jarraiturik. Ez da harrizkoa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ikastolak eskola publiko bihurtzeko aukera abian jarri bai zen, Nafarroan Administrazio Publikoaren aldetik euskaraz ikasteko eta irakasteko laguntzarik egon ez den bitartean denbora luzez, edo egondakoak oso urriak izan direlarik.

Kooperatiben jarduera sektoreei heldu aurretik, lan elkartuko kooperatibek eskualdeetan duten presentzia modu zehatzagoan ikustea interesgarria iruditzen zaigu, izan ere mota hauetakoak dira Hego Euskal Herrian gehien zabaldurik dauden kooperatibak.

2. mapa

Lan elkartuko Kooperatibak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. 2017



Iturria: geuk egina OVES/GEEBen datuetatik abiatuta.

2 Mapak erakusten duenez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa osoan eskualde bakar bat dago non lan elkartuko kooperatibarik ez dagoen, Arabako Ibarretan, hain zuzen ere. Arabako gainontzeko eskualdeetan, Lautadan izan ezik (non Gasteiz Lurralde Historikoko hiriburua aurkitzen den),

erakundeon presentzia oso baxua da. Lan elkartuko kooperatiben presentzia pixka bat nabariagoa duten eskualdeak aurkitzen ditugu batez ere Bizkaia aldean, non 20-50 inguru kontaktzen diren. Aldiz, Gipuzkoako eskualdeak lan elkartuko kooperatiben presentzia handiagatik nabarmentzen dira, zeintzuek 100 baino gehiago metatzen dituzten, logikoa aurretik aipatu dugun bezala lurraldeotako kooperatibagintzaren tradizioa eta Mondragon Taldearen presentzia handia kontuan hartuz gero.

Azkenik, kooperatiba totalekin gertatzen den bezala, ekonomia garai-kideen ohiko dinamika ikus daiteke, zeinak aktibitate ekonomikoa (eta beraz, agente ekonomikoak ere) lurralde jakinetan kontzentratzeko joera dagoen, batik bat hiriburuak aurkitzen diren eskualdeetan. Zentzu honeta, metatzen dituen biztanle eta aktibitate ekonomikoagatik Bilbo Handia nabarmentzen da.

Kooperatiben jarduera sektoreak

Ondorengo taulan kooperatiben jarduera sektoreak azken hamarkadan izandako bilakaera azaltzen da, orokorrean bada ere. Honela, kooperatiben ehun ekonomikoak Hego Euskal Herriko ekonomia egituraren isla dela esan genezake, eta izandako bilakaerak ere zentzu berean pentsaraztea egiten du. Izan ere, kooperatiba guztien %3a soilik aritzen da lehen sektoreko jardueretan gaur egun (Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantzak). Bigarren sektoreari dagokionez (industria, energia, etab.) kooperatiba guztietatik %15a bakarrik aurkitzen dira bertan eta eraikuntzaren sektorea batuz gero ia %40ra iristen dira. Aldiz, zerbitzuen sektoreak duen nagusitasuna begi bistakoa da, Hego Euskal Herriko kooperatiba totalen erdia baino gehiago hirugarren sektorean kokatzen baitira.

2. taula

Hego Euskal Herriko kooperatiben jarduera sektorea. 2007, 2017

Jarduera sektorea	Kooperatibak	
	2007	2017
Lehen sektorea	%4	%3
Industria	%26	%15
Eraikuntza	%21	%24
Zerbitzuak	%49	%58


Iturria: geuk egina OVES/GEEB eta espainiar estatuko Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministeritzaren datuetatik abiatuta.

Zentzu honetan, euskal kooperatibagintzan tertziarizazio prozesu bat eman dela esan daiteke, krisi garaian indartu dena. Izan ere, krisia lehertzerako garaian, bigarren sektorea (eraikuntza barneraturik) eta hirugarren sektorea ia pareko aurkitzen ziren eta 2017 urte amaieran, aldiz industriaren pisu erlatiboaren jaitsiera dela eta, hirugarren sektoreak ia 20 puntu portzentual ateratzen dizkio. Hala ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, errealitate honek ñabardura ezberdinak ditu lurraldeen artean.

Jarduera sektoreak pixka bat gehiago zehaztuz gero, Eraikuntzak eta Merkataritza, garraio eta Ostalaritzak duten nagusitasuna begi bistan geratzen da. Honela, soilik aipatu sektore horietan kokatzen dira Hego Euskal Herriko kooperatiba guztien ia erdia (%48). Ez da harritzekoa, izan ere ikusi dugun bezala kooperatiben %12 etxebizitzazkoak dira Hego Euskal Herrian eta merkataritza eta ostalaritzaren gorakada geroz eta handiagoa da gure lurraldean, orohar. Horiei Jarduera profesionalak, zerbitzu lagungarriak eta bigarren sektoreko kooperatibak gehituz gero, totalaren hiru laurdenak biltzen dira. Bestalde, ehuneko aipagarri bat Herri administrazio, Hezkuntza eta Osasun zerbitzuei dagokie, %10 inguru hain zuzen ere. Gehienbat setore horietan kontzentratzen dira Hego Euskal Herriko Kooperatibak. Azkenik, Informazio eta Komunikazio alorreko kooperatibek ere nahikoa esangura dutela ikusten dugu, nabarmentzekoa jarduera hauek kooperatibagintzan hartzen ari diren garrantzia dela eta.

2. grafika

Hego Euskal Herriko kooperatiben jarduera sektoreak. 2017



Iturria: geuk egina OVES/GEEB eta espainiar estatuko Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministeritzaren datuetatik abiatuta.

3 Mapan Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantzaren sektoreak, Manufaktura industriak, Eraikuntzak eta Merkataritza eta ostalaritza lurraldean zehar duten presentzia jaso dugu, hurrenez hurren. Adierazten dena, zehazki, zera da: jarduera sektore bakoitzak eskualde bakoitzeko kooperatiba totalengan suposatzen duen pisua.

Lehenago ere aipatzen genuen bezala, lehen sektoreak ez du presentzia handiegirik gure lurraldeetan. Are gehiago, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa osatzen dituzten 20 eskualdeetatik, 11 eskualdeetan lehen sektoreak kooperatiba guztien %5 baino gutxiago barnebiltzen dituzte. Aldiz, Gorbeia Inguruetan sektore honetan aritzen diren kooperatiben presentzia erlatibo handia aurkitzen dugu (%36,4), Arabako Ibarrek jarraitzen diolarik (%27,3) eta maila apalagoan Kantauri Arabarrak eta Arrati-Nerbioi eskualdeek (%9,8 eta %10,3 hurrenez hurren). Kooperatiba motekin gertatzen den bezala, beraz, Araba da (Nafarroarekin batera) lehen sektoreak garrantzia handien duen Lurralde Historikoa bere ehun kooperatiboan.

Manufaktura industriari erreparatuz gero errealitate guztiz ezberdina aurkitzen dugu, Gipuzkoa eta Bizkaiako eskualdeak direlarik kooperatiba industrialek garrantzi handiena aurkitzen dituzten lurraldeak. Debabarrena da kooperatiba industrialek maila altuena adierazten duen lurraldea, kooperatiba ehun totalarengan. Izan ere, sozietate totalen %40 industriako aktibitatea duten kooperatibek osatzen baitute eskualde honetan, beste eskualdeek aurkezten duten mailatik urrun. Jarraian, mapan ikusten dugun bezala 8 eskualde aurkitzen ditugu non kooperatiba industrialak kooperatiba guztien laurden bat suposatzen duten. Azkenik, nahiz eta eskualde arabarrek honelako kooperatiben presentzia txikiagoa duten (Errioxa Arabarra izan ezik, zeina aipatu berri dugun talde horretan kokatzen den), industria aktibitatea duten kooperatibak nahiko maila esanguratsua dute, %10 ingurukoa gutxi gora behera.


Beraz, lehen sektoreko kooperatibekin gertatzen ez den bezala (zeintzuk eskualde jakin batzuetan metatzeko joera duten), ondorioztatzen dugu kooperatiba industrialek lurralde osoan zehar presentzia handiagoa, nabariagoa eta orekatuagoa dutela.

Jada ikusi dugu Eraikuntzaren sektoreak garrantzi izugarria hartu duela Hego Euskal Herriko kooperatiba ehunean, bai eta ekonomia totalen ere. Honek eragiten du sektore honetako kooperatibak eskualde gehienetan presentzia nabarmena izatea, kooperatiba industrialekin gertatzen den bezalaxe. Kantauri Arabarrean eraikuntzan jarduten duten kooperatiben garrantzia erlatibo altuak deitzen du batik bat atentzioa (eskualdeko kooperatiba guztien %48,8 dira), Bilbo Handia eta Arabako Lautadak jarraitzen diotelarik, nahiz eta horrenbesteko aktibitate kontzentrazioa ez duten aurkezten (%30 biano gehiago).

Azkenik argi ikusi daiteke euskal eskualdeetako kooperatiben zati esanguratsu bat Merkataritza eta Ostalaritza dutela aktibitate ekonomikotzat eta kasu honetan, Eraikuntza eta Industriako kooperatibetan ikusi dugun bezala, lurralde ezarpena modu nahiko zabalean ematen dela. Are gehiago, ez dago eskualde bakar bat ere sektore hauetako kooperatiben garrantzia kooperatiba guztiengan %5ekoa baino gutxiago den. Orohar pisu hau %15-%20 bitartean aurkitzen da. Araba Mendialdean aurkitzen den kontzentrazio maila handia (bertako kooperatiben %80 Merkataritza eta Ostalaritzakoak dira) tentuz irakurri beharreko datua da, izan ere ikusi dugu 1 Mapan bertako kooperatiba kopuru totala oso baxua dela.

3. mapa

Hautaturiko jarduerak sektoreek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kooperatiba guztiengan duten pisua. 2017



Iturria: geuk egina OVES/GEEBen datuetatik abiatuta.

Kooperatiben enplegua


Atal honetan Hego Euskal Herriko kooperatiben enpleguaren bilakaera aztertuko dugu. Tamalez informazio hau ez dugu eskuragarri eskualdeka Lurralde Historiko bakar baterako ere, beraz analisia Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Lurraldeak aintzat harturik egingo dugu, bai eta Hego Euskal Herri mailan ere.

Nahiz eta, lehen ikusi dugun bezala, kooperatiba kopuru gehineko Lurralde historikoa Bizkaia izan, Gipuzkoan sortzen dute euskal kooperatibek enplegu gehien, 2017 urte amaieran diferentzia hori 10.000 lanpostukoa zelarik. 3 Grafikan azaltzen den bezala, urte honen hasieran Gipuzkoako kooperatibetan 33.260 enplegu, Bizkaikoetan 24.87, Nafarroan 9.212 eta Arabakoetan 3.579 zeuden. Hau da, Hego Euskal Herri osoan, guztira, 70.928 metatzen zituzten kooperatibek.

Lurralde Historiko ezberdinei dagokien bilakaera, Grafikan ikusten den bezala, nahiko parekotsuak izan dira urte guzti hauetan zehar. Enplegu mailaren beherakada ezagutu ondoren hasierako urteetan (Gipuzkoan eta Bizkaiari, batez ere), kooperatibak gai izan dira lan postu geroz eta gehiago sortu eta krisi hasierako enplegu maila gaunditzeko. Errekuperaketa horrek urte batzuetan atzerakadak ere izan ditu (2012, 2014 eta 2015 urteetan Gipuzkoako kasuan, adibidez), baina denboraldi oso kontuan hartzen badugu, hamarkadako azkeneko balantzea positiboa da.

3. grafika

Hego Euskal Herriko kooperatibetako enplegua. 2007-2017



Iturria: geuk egina OVES/GEEB eta espainiar estatuko Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministeritzaren datuetatik abiatuta.

Bilakaera positiboen artean Nafarroako Lurralde Historikoaren dinamika azpimarratu behar da, era berean, izan ere krisiak eztanda egin zuenetik urtez urte geroz eta enplegu gehiago sortzeko gai izan da bertako kooperatibagintza, 2012 urtean izan ezik (%2ko jaitsiera ezagutu zuen). Urte horretatik aurrera, Nafarroako Kooperatibek enpleguaren igoera benetan bizkorra ezagutu dute, 2012-2017 bitartean %40 ingurukoa.

Lau Lurralde Historikoetako enpleguaren bilakaera honen ondorioz, beraz, Hego Euskal Herriko kooperatibek ia %12ko igoera ezagutu dute hamar urteotan, ondorengo taulan ikusiko dugun bezala ekonomiak orokorrean izandako dinamikarekin erabat kontrajarria.

Hego Euskal Herria orotara hartzen badugu aztergai eta kooperatiben eta enpresa guztien enpleguaren analisi konparatua egiten badugu, goian aipatu duguna baieztatzen da. Hau da, kooperatibak gai izan dira krisiaren kolpea modu egonkor eta positiboago batean jaso eta aurre egiteko, gainontzeko ekonomia agenteen aldean, behintzat enplegu mailari dagokionez.

3. taula

Hego Euskal Herriko kooperatiben eta ekonomiaren enplegua. 2007-2017

Urtea	Hego Euskal Herriko kooperatiben enplegua	Hego Euskal Herriko enplegu totala	Koop. Pisia enplegu totalan (%)
2007	63.500	1.199.570	5,29
2008	63.770	1.219.779	5,23
2009	61.421	1.216.910	5,05
2010	62.891	1.170.344	5,37
2011	63.884	1.149.393	5,56
2012	62.970	1.136.721	5,54
2013	62.933	1.129.393	5,57
2014	63.229	1.129.235	5,60
2015	64.059	1.124.916	5,69
2016	66.378	1.144.514	5,80
2017	70.928	1.171.141	6,06


Iturria: geuk egina OVES/GEEB eta espainiar estatuko Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministeritzaren datuetatik abiatuta.

Ikusten dugunez krisiaren eragin negatiboak pairatu dituzte euskal kooperatibek. Horren adierazgarri da azterturiko urte guztien artean, 3 urteetan enpleguak atzerakada jasan duela, baina 3 Taulak adierazten duen bezala, eragin negatiboak latzagoak izan dira Hego Euskal Herriko ekonomiaren gain.

Ondorioz Hego Euskal Herriko kooperatiben enpleguaren pisua ekonomia osoarengan handitu egin da eta jadanik %6tik gorakoa da. Izan ere, 4 Grafikak erakusten duen bezala, soilik 3 urteetan izan du ekonomiak bilakaera hobea kooperatibek baino, enpleguaren urte batetik besterako aldakuntzari dagokionez.

4. grafika

Enpleguaren urte batetik besterako aldaketa. 2008-2017



Iturria: geuk egin a OVES/GEEB eta espainiar estatuko Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministeritzaren datuetatik abiatuta.

Kooperatibak eta testuinguru sozio-ekonomikoa

Aztergai dugun epealdian kooperatibek izandako bilakaeraren analisia amaitzeko, kooperatiben datuak eta hauek ezarririk dauden lurraldeetako testuinguru sozio-ekonomikoari dagozkion zenbait datu konparatuko ditugu. Horretarako, lehen azterketa saio honetan eskualde bakoitzean kooperatiben presentziak izan duen bilakaera eta langabezia tasa eta BPG³ per capita aldagaiek izandakoa erkatuko ditugu. Nafarroaren kasuan, tamalez, azterketa Lurralde Historiko mailakoa izan beharko du, jadanik aipatu dugun informazio falta dela eta.

⁴ Taulak biltzen ditu hautatu ditugun datuok. Batetik, kooperatibek eskualde bakoitzeko establezimendu⁴ kopuruan duten pisua azaltzen da. *Koope-*

³ Barne Produktu Gordina.

⁴ Teknikoki eta metodologia aldetik egokiagoa da enpresa kopurua aintzat hartzea, establezimenduen ordez, baina EUSTATEk ez ditu enpresen datuak eskualdeka eskaintzen. Aspektu hori kontuan izanda, kooperatiben pisua enpresa ehunean ⁴ Taulan jasotzen dena baino al-

ratiba dentsitatea aldagaiak, bestalde, lurralde jakin batean mila biztanleko zenbat kooperatiba dauden adierazten du. Aldagai hauek interesgarriak direla uste dugu, izan ere lurralde bakoitzeko zenbateko absolutuak soilik erabili ordez, tamaina, populazio eta ekonomi aktoreen kopuru ezberdineko lurraldeen arteko konparaketak egiten ahalbidetzen bai du, beraz, azterketa fidagarriagoak egiteko aukera ematen dute. Esan dugun bezala, taula langabezia eta BPG per capitaren datuekin osatu dugu, egin behar dugun azterketan laguntzeko.

Lurralde Historikoei erreparaturaz, hasteko, jada ikusi dugu kooperatiba kopuruak gora egin duela eta horrek isla du dentsitatean, bai populazioari, bai establezimendu kopuruari dagokionez. Honela, azken hamarkadan kooperatibek enpresa ehunean duten garrantzia handitu dute, bai Hego Euskal Herri osoan, bai berau osatzen duten lau Lurralde Historikoei dagokienez. Zentzu honetan, Bizkaiak eta Gipuzkoak bilakaera benetan handia izan dute (lehenengoan kooperatiben dentsitatea bikoiztu egin da eta Gipuzkoan, berriz, %80an handitu da), Araban eta Nafarroan bilakaera apalagoa izan den bitartean.

Langabezia tasari dagokionez, alderantzizko eboluzioak jasan dituzte Lurralde Historikoen. Izan ere kasu honetan Nafarroak (eta hein txikiagoan Arabak) izan du langabezia tasaren igoerarik handiena, bikoiztu egin delarik 2007 eta 2017 urteen bitartean. Bizkaian (%55) ez da Arabaren maila berean (%66) igo tasa baina aski esanguratsua izan da. Azkenik, Gipuzkoako Lurralde Historikoa izan da langabezia tasaren bilakaera positiboena azaldu duena, %17ko igoerekin. Honela, egungo langabezia tasa Hego Euskal Herrian %10ean kokatzen da.

Lurralde Historikoen azterketa amaitzeko 2007 eta 2015 urteetako BPG per capita-ri helduko diogu. Hego Euskal Herriko lurralde guztietan, ikus dezakegunez, BPG per capita maila jaitsi egin da 2007 urtetik 2015 urteraino, beraz euskal ekonomiaren egoera makala izaten jarraitzen duenaren ideia indartzen da, ikusi dugun langabezia tasaren bilakaerarekin batera. Nafarroa eta Bizkaian batik bat, eta Gipuzkoan egungo maila krisia lehertu aurretikoarenaren parekotsua da, gutxi gora behera, baina Arabako kasuan, maila beheraketa hau oso esanguratsua izaten jarraitzen du.

Honek adierazten du zelako eragin bortitza izan duen ekonomian krisiak, ezen 8 urteren buruan oraindik Hego Euskal Herriko lurraldeak ez diren gai aurretik zuten ekoizpen mailara iristeko, BPG per capita aintzat hartuz. Aldi berean, egia da eskualdeen artean ezberdintasun esanguratsuak aurkitzen direla eta, hala, badira batzuk euren BPG per capita maila berdinu edo gaingitu dutenak urte guzti horiek pasata, baina beste batzuetan, oraindik, urruti dira.

tuagoa da, enpresa kopurua establezimenduena baino apalagoa bai da (enpresa batek establezimendu bat baino gehiago izan ditzake, edota beste lurralde edo herrialde bateko enpresek ere izan ditzakete establezimenduak).

Eskualde ezberdinetan kooperatibek eta ekonomiak orokorrean izandako bilakaerari erreparatuz diferentzia handiak nabari dira, beste behin. Hala ere, antzekotasun batzuk aurkezten dituzten eskualdeak ere bereizi ditzakegu. Honela, lehen eskualde talde bat bereizten dugu, zeintzuetan kooperatiba dentsitateak bilakaera txikia duen bitartean (%20-%40 tartekoa 2007-2017 bitartean), langabezia tasaren igoera handiak jasan dituzten (%50etik %100erainoko langabezia tasaren bilakaerekin). Talde honetan Arabako eskualde gehienak aurkitzen ditugu (denak, Arabako Lautada eta Gorbeia Inguruak ez ezik), Arrati-Nerbioi bizkaitarrarekin eta Gipuzkoako Urola Kostaldearekin batera.


Bestalde, zenbait eskualdek bigarren talde bat osatuko lukete, kooperatiben dentsitatearen igoera esanguratsuekin batera (%50 ingurukoa) langabezia tasaren igoera Hego Euskal Herrikoaren antzekoa aurkezten duena. Bertan kokatzen dira aurreko taldean ez zeuden Arabako eskualdeak, Bizkaiako Bilbo Handia eta Gernika-Bermeo, eta azkenik, Goierri Gipuzkoan.

Hirugarren talde bat bereiz genezake, non kooperatiba dentsitateak izandako bilakaera positiboa nabarmena edo oso nabarmena izan den, langabezia tasaren igoera Hego Euskal Herriaren kasurako baino txikiagoa izan den bitartean, edo Bidasoa Behereak izan duen bezala, langabezia tasa murriztu duen (hala ere, eskualde horrek 2007 urtean zuen langabezia tasa oso altua zela adierazi behar dugu). Aipaturiko eskualdeaz gain, bertan aurkituko genituzke Donostialdea eta Lea-Artibai.

Azkenik, badira zenbait eskualde hiru talde horietan kokatu ezin ditugunak, izandako bilakaera ez bai da horietakoren batean sartzen. Honela, Tolosaldea eta Debagoienak kooperatiben dentsitatearen igoera eta langabeziaren igoera apalak aurkezten dituzte aldi berean, edota Bizkaiko aipatu ez ditugun eskualdeek kooperatiba dentsitate nabarmena izanik, langabezia tasaren igoera handiak dituzte.

5. grafika

Kooperatiba dentsitate eta langabezia tasaren bilakaera eskualdeka. 2007-2017



Iturria: geuk egina OVES/GEEB eta EUSTATen datuetatik abiatuta.

4. taula

Hego Euskal Herriko kooperatiben eta ekonomiaren bilakaera. 2007, 2017

Eskualdea / Lurralde Historikoa	2007				2017			
	Koop. Pisua establezimendu totalen	Kooperatiba dentsitatea	Langabezia tasa	BPG p/c (€)	Koop. Pisua establezimendu totalen	Kooperatiba dentsitatea	Langabezia tasa	2015 urteko BPG p/c indizea (100=2007 urtea)
Arabako Ibarrek	1,85	1,45	6,7	54.740	1,64	1,82	14,5	99,7
Arabako Lautada	1,19	1,01	9,1	34.757	2,04	1,45	14,9	95,6
Araba Mendialdea	1,50	1,26	4,6	39.206	1,29	1,66	10,4	92,8
Errioxa Arabarra	1,87	2,39	8,2	61.859	1,73	3,04	16,8	91,1
Gorbeia Inguruak	1,45	1,46	6,3	55.275	2,58	2,52	10,1	76,9
Kantauri Arabarra	1,28	0,92	8,3	38.408	1,74	1,18	15,6	87,9
ARABA	1,24	1,08	8,9	37.114	1,97	1,51	14,8	93,7
Arrati Nerbioi	1,11	0,92	7,8	32.203	1,53	1,22	14,3	81,5
Bilbo Handia	0,54	0,51	11,5	30.616	1,51	1,22	17,7	100,8
Durangaldea	0,93	0,77	7,9	38.300	1,81	1,34	13,3	97,1
Enkartzioak	1,38	1,13	7,5	23.966	1,98	1,66	19,6	75,6
Gernika-Bermeo	0,57	0,46	10,0	25.846	1,41	1,05	15,5	98,2
Plentzia-Mungia	0,48	0,39	11,0	26.521	1,13	0,85	13,6	93,8
Lea-Artibai	1,34	1,02	12,1	26.289	2,05	1,49	14,1	102,1
BIZKAIA	0,61	0,56	10,9	30.637	1,53	1,22	16,9	99,0
Bidasoa Beherea	0,64	0,71	18,8	25.926	2,01	1,74	16,3	99,1
Debarrena	0,75	0,66	9,7	29.789	1,19	0,86	14,8	101,0
Debagoiena	2,94	2,25	12,1	42.974	4,17	2,62	11,8	85,1
Donostialdea	0,63	0,72	11,9	32.535	1,53	1,41	12,9	102,9
Goierri	1,52	1,31	7,3	38.112	2,88	2,05	11,6	87,9
Tolosa	1,09	1,07	9,6	33.173	1,37	1,11	12,4	88,9
Urola Kostaldea	0,89	0,83	8,2	30.973	1,39	1,14	13,3	94,0
GIPUZKOA	0,91	0,94	11,3	32.931	1,82	1,52	13,2	97,0
NAFARROA	0,64	0,50	4,3	29.451	0,97	0,75	9,63	99,1

Iturria: geuk egina OVES/GEEB, espainiar estatuko Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministeritza, EUSTAT eta INEren datuetatik abiatuta.

5. Ondorioak

Ikerlan honetan Hego Euskal Herriko kooperatiba ehunaren azterketa egin nahi izan dugu, horretarako 2017ko datuak erabiliz. Gainera, arreta berezia jarri diogu krisia lehertu zenetik gaur egun arte sektoreak izan duen bilakaerari, kooperatiba kopuruak eta enpleguak izan duten jarrera jomugan jarriz. Izan ere, egungo kooperatiben ezaugarri nagusiak ezagutzeaz gain, gure helburua, lurralde batean kooperatiben presentzia handiago edo txikiagoak ea eraginik izan duen jakitea zen, krisi ekonomikoaren ondorioak pairatzeko orduan.

Honela, kooperatibak Hego Euskal Herri osoan zehar aurkitzen ditugula egiaztatu dugu, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan, Arabak duelarik presentzia txikiena. Bestalde, datu desagregatuak faltan izanik, Nafarroako eskualdeetako kooperatiben ezarpena ez dugu ezagutu ahal izan.

Bestalde, Lurralde Historiko ezberdinetan aurki daitezkeen kooperatiben izaera eta jardunari dagokionez, desberdintasunak daudela ikusi dugu, baita eskualdeen artean ere. Kooperatiba motari dagokionez, esaterako, nahiz eta Hego Euskal Herri osoan lan elkartukoak diren nagusi, Nafarroan (eta Araban era xumeagoan) nekazaritzako kooperatibek ere garrantzi erlatibo nabarmena dute, Bizkaia eta Gipuzkoan ez bezala.

Jarduera sektoreari dagokionez kooperatiben jardueraren tertziarizazio prozesu bat ematen ari dela ere nabaria da eta, aipatzekoa da, era berean, Eraikuntzako sektoreak duen garrantzia, etxebizitzako kooperatibek duten presentzia handiarengatik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako eskualdeetan zehar.

Hasieran planteatu dugun hipotesiari dagokionez, zaila da bildu eta aztertu ahal izan ditugun datuekin ondorio garbirik ateratzea, eta beraz, lurralde jakin bateko ehun ekonomikoan kooperatibek duten garrantziak ea krisiari lurralde horrek hobeki eusten dion ala ez determinatzea ezinezkoa egin zaigu. Izan ere, nahiz eta badirudien zenbait lurraldeetan azterturiko datuek korrelazio jakin bat adierazten dutela, hau ez da kasu guztietan betetzen eta, beraz, aldagai gehiago kontuan hartu beharko lirakeke, ezinbestean.

Hala ere, zalantzarik gabe baieztatu dezakegu kooperatibek gainontzeko enpresek baino portaera hobea izan dutela krisia lehertu zenetik, sozietate kopuruari eta enplegu mailari erreparatzen badiegu. Berezi aipagarria da, zentzu honetan, Nafarroako kooperatibek izan duten bilakaera azken urteetan, enpleguak nabarmen egin duelarik gora. Ondorioz, erakunde hauek Hego Euskal Herrian duten presentzia geroz eta handiagoa dela ikusi dugu.

6. Bibliografia

- Barragué, B. eta Zalakain, J. (koord) (2017): «*Repensar las políticas sociales: redistribución e inversión social*». Editorial grupo 5. Madrid.
- Bouchard, M.J. eta Richez, N. (2010): «*L'évaluation de l'économie sociale, une perspective critique et internationale*». Économies et solidarités. Vol. 39, 1 zenbakia.
- Bretos, I. (2015): «*Medición y Visibilización de la Economía Social en el País Vasco: Dificultades, Aproximaciones y Propuestas desde el Observatorio Vasco de Economía Social*». REVES-Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria, 12 zenbakia. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Bretos, I. eta Morandeira, J. (2016): «*La economía social ante la actual crisis económica en la Comunidad Autónoma del País Vasco*». REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos, 122 zenbakia, 7-33 orrialdeak. DOI: 10.5209/rev_REVE.2016.v122.52020.
- CICOPA (2017): «*Cooperatives and Employment. Second Global Report. 2017. Contribution of cooperatives to decent work in the changing world of work*». Eskuragarri (kontsulta 2018/07/04ean egina): <http://test.cicopa.coop/wp-content/uploads/2018/01/Cooperatives-and-Employment-Second-Global-Report-2017.pdf>
- Engels, F. (1970): «*El origen de la familia, la propiedad privada y el estado*». Editorial Fundamento. Madrid.
- García, M. (2017): «*Crisis económica y economía social*». REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos, 126 zenbakia, 74-93 orrialdeak.
- Gil, I (2002): «*Cooperativismo obrero, consejismo y autogestión socialista. Algunas lecciones para Euskal Herria*». Euskal Herria.
- Merino, S. (2005): «*Los orígenes del cooperativismo moderno y el socialismo premarxista*». REVES-Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria, 1 zenbakia. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Monzón, J.L. (koord.) (2012): «*El Cooperativismo ante la globalización*». Ekonomia 79 zenbakia. Vitoria-Gasteiz.
- Monzón, J.L. eta Chaves, R. (2017): «*Evolución reciente de la Economía Social en la Unión Europea*». Comité Económico y Social Europeo. Bruselas.
- Morgan, L.H. (1987): «*La sociedad primitiva*». Editorial Endymion. Madrid.
- Nazioarteko Kooperatiba Aliantza (1995): Asanblada Orokorra. Manchester.
- Olabarri, I. (1985): «*Tradiciones cooperativas vascas*». En Euskal Herria: Historia y sociedad. Caja Laboral Popular. Bilbo.
- Sala, M., Farré, M. eta Torres, T. (2014): «*Un análisis del comportamiento cíclico de las cooperativas y sociedades laborales españolas y su relación con la actividad económica*». REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos, 115 zenbakia, 7-29 orrialdeak. DOI: 10.5209/rev_REVE.2014.v115.45279.
- Smith, S. eta Rothbaum, J. (2013): «*Cooperatives in a Global Economy: Key Economic Issues, Recent Trends, and Potential for Development*». Policy Paper No. 68, Institute for the Study of Labor (IZA), Bonn, Alemania.

- Uriarte, R (1988): «Estructura, desarrollo y crisis de la siderurgia tradicional vizcaina (1700-1840)». Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Zelaia, A. (1997): «*Kooperatibak Euskal Herrian*». Udako Euskal Uniberstitatea. Bilbo.

Webgrafia

- Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministeritza. Espainiar estatua (azken kontsulta: 2018.09.25).
- EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundea (azken kontsulta: 2018.09.20)
- INE (azken kontsulta: 2018.09.20).
- OVES/GEEB-Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia (azken kontsulta: 2018.09.10).